


Hezkuntza askatzailea. Ekintza eta eraldaketa gizarte globalean



Aurkezpena

Gaur egun bizi dugun krisia produkzio-eta kontsumo-eredu baten ondorioa da, zeinak merkatuen interesak herrien eta pertsonen eskubideen gainetik kokatu, desorekak areagotu, eta Garapena justizia soziala eskuratzen laguntzeko tresna izatetik urrunarazten duen. Hainbat jarrera kritiko garatu izan da zibilizazio-krisi horren benetako dimentsioak atzeman asmoz, bai eta eredu hegemonikoa eta Garapenari buruzko eztabaida bideratzen ari garen modua aldatu beharraz ohartarazi gogoz.

Zenbait diskurtso berritzailearen (esaterako: desazkundea, ekonomia feminista, ekologia soziala, Sumak kawsay edo “ongi bizitzearen” ideia¹...) proposamenek Garapen kontzeptua kolokan jartzea eskatzen dute... eta errotik jarri kolokan, ez baita –ezta paradigma berritzaileenetan ere– oinarri duen izaera produktibista, kapitalista, eurozentriko eta heteropatriarkala gainditzeko gauza izan.

Gizarte antolaketa sistema global eta konplexu hori errotik kolokan jartzea ez da lehen urratsa baino, babesten gaituen planeta eta bertan bizi garen pertsonak zainduko dituen eredu baten oinarriak ipintzeko. Alabaina, premiazko zeregina da, justizia soziala, elkartasuna eta pertsonen arteko aukera-oreka ezaugarri izango dituen etorkizun utopiko eta iraugarri baterako bidean.

Hain helburu anbiziotsuak heziketa kritikoa sustatzearen erronkaren aurrean jartzen gaitu; soilik horrela lortuko dugu gaurko gazteen artean testuinguru gertuko eta nazioartekoa bere konplexutasunean egoki ulertzeko beharrezko jakituria sustatzea, eta gizartea aldatzen laguntzeko beharrezko ezagutza sorraraztea, betiere pertsona eta kolektibo guztien eskubideak babestu eta askapen-beharrei erantzungo dieten munduaren irakurketa etiko eta eraldatzaile batetik bideratuta.

Ezaugarri horiek izango dituen hezkuntza-ekintza ezaugarri jakin batzuei erantzungo dieten eragileak eskatzen ditu: ikuspegi kritikoetan prestatuak, parte hartzeko metodologietan trebatuak, eta praktika alternatiboak ezagutzen dituztenak. Gizartea eraldatzeko ekintza politiko kolektiboetan aritzeko gaituko dituzten ezagutza, trebetasun, balore eta ahalmenak garatu beharko dituzte bereziki.

Idea horiek buruan, **Hezkuntza askatzailea. Ekintza eta eraldaketa gizarte globalean** izeneko prestakuntza-programa eskainiko du 2013-2014 ikasturtean Hegoak, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuak.

¹ *Sumak kawsay* terminoa kitxua hizkuntzakoa da; Ekuador eta Boliviako konstituzioek “*buen vivir*” gisa jasotzen dute gaztelaniaz.

Formazio-modalitatea

Hezkuntza askatzailea. Ekintza eta eraldaketa gizarte globalean ikastaro konbinatuaren (aurrez aurreko saioak eta online blokeak uztartuko baitira bertan) iraupena 32 ECTS kredituren parekoa da.

- 2 saio aurrez aurre, nahitaezkoak, asteburuetan.
- 7 bloke online, <http://moodlelic.ehu.es>, plataforma birtualaren bidez, ikasgaitan banatuta.

ECTS kreditu batek 25 ordu ingururen balioa dauka, modu honetan banatuta:

- 10 orduz online: materiala kontsultatzea, plataforman proposatutako ariketa eta jarduerak egitea, foroan parte hartzea.
- 15 orduz lan pertsonala eta ikasgai bakoitzeko azken jarduera egitea.

Ikasgai bakoitza irakasle jakin baten ardurapean egongo da, zeinak, dokumentazioa aukeratzeaz gain, lan hauek egingo baititu:

- Foroa dinamizatzea.
- Ikasleekin tutoretza-lanak egitea.
- Jarduerak proposatzea (moduluko azken ariketa) eta ikasleak ebaluatzea.

Ikastaroak iraun bitartean, formazioa <http://moodlelic.ehu.es> plataforma birtualaren bidez garatuko da. Bertan, materialak eskuratzeko, eztabaida foroan parte hartzeko, lanak kudeatzeko eta material idatzi eta grafikoa sartu berria gordetzeko guneak egongo dira.

Horrez gain, <http://moodlelic.ehu.es> plataforma, ikastaroaren egutegia egongo da, eta bertan adieraziko dira ikasgai bakoitzaren hasiera- eta amaiera-datak, eta lanak aurkezteko epeak. Normalean, astebete izango dute ikasleek lan bakoitza egin eta aurkezteko.

Ikasgai bakoitzeko irakaslea arduratuko da edukiekin eta jarduerekin lotutako lanaren tutoretza egiteaz, bai eta foroa dinamizatzeaz ere, foroa martxan egongo den bost egunetan. Berak ebaluatuko ditu ikasgai amaieran ikasleek egingo dituzten lanak.

Hegoako lan-taldea arduratuko da ikastaroko idazkaritza-lanez, parte-hartzaileei plataforma birtualaren erabileran edo ikastaroaren kudeaketarekin erlazionatutako beste edozein arlotan laguntza emateko.

Online lan proposamenetan, parte hartzera animatuko dira ikasleak. Ikastaroaren aprobetxamenduari buruzko ziurtagiria lortzeko, baloratu egingo dira ikasleen parte hartzea foroan, eta ikasgai bakoitzerako ezarritako jarduerak egitea. Gutxienez, kredituen % 85 gainditu beharko dituzte ikasleek.

Irakasleak

CELORIO DÍAZ, Gema (Hezkuntza saila. Hegoa - Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua. EHU/UPV).

CELORIO DÍAZ, Juanjo (Gizarte Zientzien Didaktika Sailaren irakaslea. Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola. EHU/UPV).

CUERVO MÚGICA, Carlos Carlos (CALA -Centro Alternativo de Aprendizajes- erakundeko kidea, Alburquerque, Extremadura).

DEL RÍO MARTÍNEZ, Amaia (Hezkuntza saila. Hegoa - Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua. EHU/UPV).

FANO MÉNDEZ, Santiago (Maisua, Pedagogiaren ikaslea Oviedoko Unibertsitatean).

FUEYO GUTIÉRREZ, Aquilina (Hezkuntza Teknologiaren irakaslea. Oviedoko Unibertsitatea).

GALLAR HERNÁNDEZ, David (ISEC -Instituto de Sociología y Estudios Campesinos- erakundeko kidea. Kordobako Unibertsitatea).

GOLDAR, María Rosa (CEAAL -Consejo de educadores y educadoras populares de América Latina y el Caribe- erakundeko kidea).

JUBETO RUIZ, Yolanda Yolanda (Ekonomia Aplikatuaren irakaslea. EHU/UPV).

LARRAÑAGA SARRIEGI, Mertxe (Ekonomia Aplikatuaren irakaslea. UPV/EHU).

LÓPEZ DE MUNAIN SOLAR, Alicia (Hezkuntza saila. Hegoa - Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua. EHU/UPV).

MALDONADO CAMPOS, Adolfo (Mediku eta ikerlaria. Acción Ecológica erakundearen osasun eta ingurune arloaren arduraduna. Ekuador).

MARTÍNEZ BONAFÉ, Àngels (Bigarren Hezkuntzako irakaslea. Valentziako Escola d'Estiu Pedagogi Berrikuntzarako Mugimenduaren kidea).

MARTÍNEZ BONAFÉ, Jaume (Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saileko irakaslea. Valentziako Unibertsitatea).

MARTÍNEZ GARCÍA, Zesar (Soziologia Saileko irakaslea. EHU/UPV).

OION ENCINA, Rakel (Gizarte Proiektuen Diseinu eta Ebaluazioko irakaslea. Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola. EHU/UPV).

PÉREZ OROZCO, Amaia (Ekonomialaria eta Feminista. Doktorea Nazioarteko Ekonomia eta Garapeneko alorrean, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean).

PIRIS LECUONA, Silvia (Ikerkuntza saila. Hegoa - Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua -. EHU/UPV).

SOSA SÁNCHEZ-CORTÉS, Gloria (CALA -Centro Alternativo de Aprendizajes- erakundeko kidea, Alburquerque, Extremadura).

ZABALO ARENA, Patxi (Ekonomia Aplikatuaren irakaslea. EHU/UPV).

Egitaraua

IKASGAIAK		
AURREZ AURREKO 1. Saioa		50 ordu
Taldearen aurkezpena. Metodologia	Alicia López de Munain (HEGOA)	25 ordu
Garapenerako Hezkuntzaren hastapenak (aurretiazko ideiak; sentsibilizazioa/GH aldeak)	Gema Celorio / Amaia del Rio (HEGOA)	25 ordu
1. modulua. GARAPENERAKO HEZKUNTZA		75 ordu
Garapenari buruzko diskurtsoaren bilakaera. Garapenerako Hezkuntza Europan	Gema Celorio (HEGOA)	25 ordu
GHren garapena espainiar estatuan (belaunaldiak, eragileak, estrategiak)	Rakel Oion (UPV/EHU)	25 ordu
GHren egungo egoera, 4. eta 5. belaunaldien artean	Gema Celorio (HEGOA)	25 ordu
2. modulua. GLOBALIZAZIO NEOLIBERALA ETA ALDAKETARAKO ARDATZAK		100 ordu
Globalizazio neoliberala	Patxi Zabalo (UPV/EHU)	25 ordu
Kapitalismoak eragindako krisialdiak	Mertxe Larrañaga (UPV/EHU)	25 ordu
Garapenaren osteko diskurtsoak (Zainketa-lanen ekonomia, Biziazen iraungarritasuna, Sumak kawsay, Desazkundera)	Amaia P. Orozco (Ekonomista eta Feminista)	25 ordu
Gizarte mugimenduak, eragile eta praktika berriak (gizarte-aldaketako esperientziak)	Silvia Piris (HEGOA)	25 ordu
3. modulua. GARAPENERAKO HEZKUNTZATIK HEZKUNTZA ASKATZAILEARENGANAKO BIDEA		75 ordu
Pedagogiaren ikuspegi kapitalistak. Erreproduzioaren pedagogiaren diskurtsoen analisia	Juanjo Celorio (UPV/EHU)	25 ordu
Pedagogiaren ikuspegi kritikoak. Askapenerako teoria eta praktikak	Juanjo Celorio (UPV/EHU)	25 ordu
Hezkuntza askatzailearen oinarriak. Zer omen da gizarte-eraldaketa?	Juanjo Celorio (UPV/EHU)	25 ordu
AURREZ AURREKO 2. saioa		50 ordu
Parte hartzearen pedagogia (jabekuntza- eta boteretze-estrategiak). Taldeen kudeaketa eta asanblada bidezko prozesuak	Carlos Cuervo (CALA Taldea)	25 ordu
Ikastaro amaierako proiektuaren definizioa	Gloria Sosa (CALA Taldea)	25 ordu

4. modulua. HEZKUNTZA ASKATZILEAREN DIDAKTIKA KRITIKOA		75 ordu
Curriculum askatzailea osatzeko kultur hautaketa. Ebaluazioa eta sistematizazioaren auzia	Àngels Martínez Bonafé (Valentziako Escola d'Estiu PBM)	25 ordu
Askatzen ikastea. Hezkuntza-harremanen eraikuntza. Tresnak, materialak eta baliabideak	Jaume Martínez Bonafé (Valentziako Unibertsitatea)	50 ordu
5. modulua. HEZKUNTZA-IKERKUNTZA		25 ordu
Ikerketa-Ekintza Parte hartzailearen oinarri eta estrategiak	Adolfo Maldonado (Acción Ecológica erakundea)	25 ordu
6. modulua. HEZKUNTZA ASKATZAILEAK ERALDAKETA SOZIALARI EGITEN DIZKION EKARPENAK (I eta II)		50 ordu
Zapalkuntza, erresistentzia eta borrokak. Boterea, demokraziaren krisialdiak, gizarte mugimenduak eta askapen-prozesuak	Zésar Martínez (UPV/EHU)	25 ordu
Demokrazia ordezkatzaitetik demokrazia erradikaleraino. Subjektu politikoaren formakuntza eta giza mugimenduen ekintza	M ^a Rosa Goldar (CEAAL. Fundación Ecuménica de Cuyo. Programa Mercosur Social y Solidario. Argentina)	25 ordu
7. modulua. HEZKUNTZAKO EKINTZA ASKATZAILERAKO ESPAZIOAK		125 ordu
Hiri espazioa	Yolanda Jubeto (UPV/EHU)	25 ordu
Nekazaritza espazioa	David Gallar (Cordobako Unibertsitatea)	25 ordu
Gorputzaren espazioa	Rakel Oion (UPV/EHU)	25 ordu
Espazio birtuala eta transmediatikoa	Queli Fueyo / Santiago Fano (Oviedoko Unibertsitatea)	50 ordu
IKASTARO AMAIERAKO LANA		175 ordu
2014ko maiatzaren 23tik ekinaren 6ra bitartean: gainditu gabeko ikasgaien errekupeazioa		
2014ko ekainaren 30a: Ikastaro amaierako lana aurkezteko epea		
2014ko uztailaren 15a: Ikastaro amaierako lanaren kalifikazioa		

Profila

- ◆ Gizarte-eragile eta –ekintzaileak (gizarte mugimenduak, GKEak, boluntarioak...).
- ◆ Irakasleak (oinarrizko eta goi-mailako hezkuntzakoak).
- ◆ Hezitzaileak (aisialdiko begiraleak, pertsona helduen hezitzaileak, animazio soziokulturala...)

Parte hartzeko eskakizunak

- ◆ Plaza kopurua: 30 pertsona.
- ◆ Izena emateko orriarekin batera motibazio-gutun bat aurkeztu behar da.
- ◆ Aintzat hartuko da norberaren eskarmentua, dela profesionala, dela gizarte erakunde eta mugimenduetan parte hartzearena, bereziki gizarte-eta hezkuntza-ekintzaren alorrean.

Inskripzioa

Izena emateko epea: 2013ko irailaren 9etik 20ra.

Matrikula egin aurretik, izena eman behar da nahitaez, eta horrekin batera motibazio-gutuna aurkeztu.

Idazkaritza teknikoaren baieztoko erantzuna jaso behar da nahitaez matrikularen zenbatekoa ordaindu aurretik. (Plaza kopuru mugatua).

Matrikula egiteko epea: 2013ko irailaren 23tik 30era.

OHAR GARRANTZITSUA: ikastaroak bi asteburutako eskolak hartzen ditu baitan (ostiral arratsalde, larunbatean egun osoz, eta igande goizez), nahitaezkoak. Gasteizera joateko gastuak ikasle bakoitzaren kontukoak izango dira; aldiz, Gasteizen lo egin eta jatekoak Hegoaren kontura joango dira.

Matrikula: 175 euro.

Ordainketa modalitatea: Banku-transferentzia (honekin batera dagoen izena emateko orria posta elektronikoz edo faxez bidali behar da. Baieztokoa jaso eta gero transferentziaren ordainagiria ere bidali behar da).

Titularra: Hegoa • **Erakundea:** Kutxabank. **K/K:** 2095 3149 61 1090070169

Ikastaroko idazkaritza

Gema Celorio

HEGOA. Arabako Campuseko Liburutegia. UPV/EHU

Nieves Cano kalea 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel./Faxa: +34 945 014287 • gema_celorio@ehu.es

www.hegoa.ehu.es

Antolatzailea:



Laguntzailea:



IZENA EMATEKO ORRIA

Izen-abizenak:

Lanbidea: Ikastetxea/Erakundea:

Laneko helbidea:

Herria: PK:

Telefonia: Helbide elektronikoa:

Datuak Babesteko Lege Organikoa (LOPD)

Datuen babeserako 15/1999 Lege Organikoaren arabera, zure datu pertsonalak HEGOA titularra den "Izen-emateak" fitxategian egongo dira jasota, Jardunaldien kudeaketa egokia egiteko. Datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideak bete ditzakezu, horretarako HEGOArara jota, helbide honetara: Hegoa - Zubiria Etxea, Lehendakari Agirre etorbidea 83, 48015 Bilbao.